

Estatu frantsesa eta Iparraldeko mugimendu antimilitarista: harremana eta bere eraginak mugimenduaren ibilbidean

Eguzki Urteaga
Soziologian lizentziatua

Izenburuak dioen bezala, artikulua hau Estatu frantsesa eta Iparraldeko mugimendu antimilitaristak ukandako harremanera interesatzen da, bai eta harremanak mugimenduaren ibilbidean eduki dituen eraginetara ere. Funtsean, gure hipotesia da ezin dela mugimendu honen eta oro har mugimendu sozialen ibilbidea ulertu estatu zein mugimenduaren arteko harremana kontuan hartu gabe. Horrek zera suposatzen du: batetik, egitura politikoak eta estatuak mugimenduarekin erabili duen logika, estrategia, akzioak zein prozedurak kontuan hartzea zentrala dela eta ez, Touraine-ren gisara, mugimenduak eta estatuak bi zelai desberdinekoak direla kontsideratzea; eta bestetik, mugimenduak aktoreak direla, beren estrategietan integratuz estatuaren jarrerari aurre egiteko gai direlarik, eta, estatuaren logika interaktibo baten arabera funtzionatzeaz gain, akzio-errepertorio batzuk erabiliz, akzio-programak praktikan jartzen dituela, maila batean, beren ibilbidean eragina edukiz.

As the title says, the article is interested in the relationship between the French State and the antimilitarist movement of the North of the Basque Country, as well as the effects this relationship has on the trajectory of the movement. In fact, our hypothesis supports that it is impossible to understand the trajectory of this movement, and beyond social movements, without considering the relationship between the State and the movement. The hypothesis supposes, on the one hand, that it is important to count on the structure of politics and the used logic, strategies, actions and procedures developed by the State, and not, as Touraine says, considering States and movements into two different fields. On the other hand, the hypothesis considers that movements are actors, and, on consequence, both capable to face the attitude of the State by integrating into its strategies, and moreover to work in function of an interactive logic, using a few repertory actions and putting action programs into practice; in some way, having an influence on his trajectory.

0. Sarrera

Artikulu hau, Estatu frantsesa eta Iparraldeko mugimendu antimilitaristaren arteko harremanera interesatzen da, bai eta horrek mugimenduaren ibilbidean ukan dituen eraginetara ere. Funtsean, gure hipotesi orokorra da ezin dela mugimendu honen ibilbidea ulertu bi aktore horiek daukaten harremana kontuan hartzen ez bada.

Hipotesi honek bi teoriatik bereiztea esan nahi du. Batetik, Tourainengandik (1978), horrek estatuaren egitura, logika zein akzioei garrantzia ematea suposatzen baitu. Berarentzat ordea, mugimendu sozialen eta estatuaren analisisa erabat bereziak dira, lehen gizarte zibilean kokatzen delako, eta bigarrena, politikoan. Beraz, «politikoak mugimenduetan eduki dezakeen eragina baztertzen du» (Duyvendak 1992: 29). Eta bestetik, Duyvendak-en teoriatik ere bereizten da. Hain zuzen ere, politikoak mugimenduengan daukan pisuari interesatzen da (1992). Arazoa da, mugimenduen ibilbidea eta, batez ere, egitura, estatuaren egitura eta mugimenduekin erabilitako logika dominantetik deduzitzen dituela. Beste modu batera esanda, mugimenduak ez dira aktore gisa kontsideratuak.

Gu ordea, estatuaren eta mugimenduaren arteko harremanari interesatuko gara. Esan nahi baita, Estatu frantsesaren egituraz gain mugimenduaren arabera usatutako logika, estrategia, akzioak zein prozedurak aztertuko ditugula, mugimenduak estatuari aurre egiteko erabilitako logika, osatutako estrategiak, akzio-programetan edo kanpainetan gauzatzen direnak, eta akzio-errepertorio batzuk erabiliz.

Harreman hau are garrantzitsuagoa da gure objektu enpirikoaren kasuan. Izan ere, Estatu frantsesaren logika “esklu-siboak” (Kriesi 1991: 9) eta mugimendu antimilitaristaren logika interaktibo “rupturistak” bien arteko erlazioa konfrontazionala zein polarizantea bilakatu baitu. Baina, harremanaren azterketa interesgarria eta beharrezkoa bada ondorengo ulertzeko, mugimenduaren ibilbidean dauzkan eraginak interesatuko zaizkigu funtsean.

Bestalde, oinarri teorikoei dagokionez, esplikazio kontestuala hobetsiko diogu esplikazio esentzialistari Tilly-ren (1986: 214) iradokizuna segituz. Baita ere prozedura determinantei, Fillieulle-k dioen gisara (1995: 25)¹. Horrez gain, esan beharra daukagu, argitasuna irabazteko, mugimendu zein estatuaren jarrerak bata bestearen ostean jorratuko ditugula, perspektiba interaktiboan aztertzearen.

Beraz, plano hiru partetan zatituko da. Lehenik, Estatu frantsesaren egitura eta mugimenduan baliatutako logika dominantea zein diren ikusiko dugu, osatutako estrategiak bere osagai desberdinekin², praktikan jarritako akzioetan gauzatzen direnak, eta zein prozedura erabiltzen dituen.

Ondoren, agerian ezarriko dugu behin estatuaren jarrera interpretatuta, mugimenduak zein logika interaktibo erabiltzen duen estatuarekin, zein aspektu sartzen diren jokoan estrategiak eratzekoan, akzio-programetan gauzatzen direnak, eta zer akzio-errepertorio erabiltzen dituen.

Eta, azkenik, harreman horrek mugimenduaren ibilbidean dauzkan eragi-

1. Comte-ek jada perspektiba dinamikoari lehentasuna ematen zion.

2. Mugimenduaren jarrera barne delarik.

nak ikusiko ditugu. Horretarako adierazle batzuk aukeratu ditugu, hau da, mobilizazioaren dinamizazioa, mugimenduak lortutako sustenguak, barne-egoera eta indar-harreman zein gatazkaren instituzionalizazioa.

1. Estatu frantsesaren³ egitura eta mugimenduarekin erabilitako logika dominantea, estrategiak, akzioak zein prozedurak

Estatuak praktikan jarritako akzioa eta erabilitako prozedurak aztertu baino lehen, bere egitura zein logikarekin hasi behar dugu. Izan ere, Kriesi-ren aburuz, aukera politikoen egitura hiru aspektuz osaturik dago, hots, «bere egitura instituzional formala, bere (...) (logika) dominantea mugimenduen arabera eta boterearen konfigurazioa». Gu lehen bietara mugatuko gara horiek «ezartzen baitituzte mobilizazio edo akzio kolektiboaren oinarriak» (Kriesi 1991: 3).

1.1. Estatuaren egitura instituzional formala

Estatu frantsesak hiru funtsezko ezaugarri ditu, hau da, zentralizazioa, boterearen kontzentrazioa eta administrazio publikoaren kohesioa.

Zentralizazioari dagokionez, Tocqueville-k jada zioen Frantzia zela, ez soilik Mendebaleko herrietatik zentralizatzaileena, baita hala zela aspaldienetik⁴. Eta Birnbaum (1980) zein Rosan-

vallon-ek diotenez egoera ez da geroztik asko aldatu, mugimendu sozialentzat behintzat. Azken honen iritziz: «deszentralizazioak ez du oraino eragin erabakigarririk ukan Frantzia Estatu-Gizarte harreman-aldaketei dagokionez» (1990: 280). Eta zentralizazioak, Iparraldeko mugimendu antimilitaristari estatuaren akzesoa itxi dio, «estatuarekiko akzesoa bere zentralizazio (territorial) mailarik lotua delako» (Duyvendak 1992: 90).

Estatuaren bigarren ezaugarria, boterearen kontzentrazio handia da. Izan ere, Frantzia botere exekutiboak indar handia du, parlamentua bigarren plano batera utziz. Freas-en esanetan «exekutiboaren nagusigoa osoa da prozesu legislatiboaren bidez, debate kritikorako, exekutiboaren ekintzen aztertzeko edo publikoki kontuak ematera bortxatzeko, aukerarik ez baitago» (1990: 33). Adibide gisa, mugimendu sozialek ezin diote dei egin Kontseilu Konstituzionalari edo beste instituzio juridikoei gobernuaren erabakiak kolokan jartzeko. Alabaina, Writh-ek dioten modura, «parlamentua ahula izan arren, exekutiboaren parametro orokorrak definitzen segitzen du» (1989: 149). Zentralizazioaren kasuan bezala, botereen arteko bereizketa murrizteko edo kontrol zein arbitraje puntu gutxiek estaturako akzesio formala txikitu dute.

Azkenik, Kriesik azpimarratzen duen gisara, «Frantzia, zentralizazioak eta estatuaren kontzentrazioak barne-

3. Urrutiago joan baino lehen, ohar bat egitea beharrezkoa zaigu. Izan ere, estatu frantsesaz hitz egiten dugunean lau aktore instituzional entzungo ditugu hemen, horiek izan baitira Iparraldeko mugimendu antimilitaristarekin kontaktuan. Hots, polizia zein prefeta, justizia, armada eta kartzela. Formalki, lau aktore instituzionalak funtzionalki osagarriak dira bakoitzak bere independentzia ukan arren. Baina Estatu frantsesaren kasuan, koherentzia eta homogeneitate handia dago. Hori dela eta, estatuaz hitz egiten dugu aktore moduan.

4. Rosanvallon-ek hala ere zentralizazio zaharra eta modernoa bereizten ditu. Zaharra, (Iraultza Frantsesera arte zihona) horizontala zen, politikoa eta teknikoa zela esan nahi baita, estatuaren eraikuntzari lotua. Modernoa ordea, bertikala, filosofikoagoa izan da, nazioaren eraikuntzari lotua (1990: 104-106).

-koordinazioa permititzen dute». Gehi-
go denik, administrazio publikoa kohe-
sionatua zein profesionalizatua da, es-
kola handietan irakasten den bezala
(Birnbau 1980: 187). Hor ere, admin-
istrazio publikoaren kohesioak akzesu
formalak mugatzen ditu.

Oro har, ezaugarri horiek guztiak
esanarazten digute Estatu frantsesa
estatu indartsutzat kontsidera daite-
keela. Eta estatu indartsuak «eragin
negatiboa edukiko du mugimendu soz-
ialen (...) eboluzioan, estatuak akzesu
gutxi proposatzen baititu» (Duyvendak
1992). Horrek ez du esan nahi pun-
tualki eragin positiborik eduki ez deza-
keenik. Baina funtsean, ez du mug-
imenduen garapena laguntzen, gure
kasuan ikusi ahal izango dugun gisara.

Baina, Iparraldeko mugimendu anti-
militaristak egitura instituzionalaren
eraginak jasan baditu, estatuak bere
arabera erabilitako logika dominantea
ikusi du batez ere, horren arabera
ondoren aktuatu.

1.2. Mugimendurekin erabilitako logika dominantea

Orokorki, estatuak mugimendure-
kin erabili duen logika dominantea
egitura instituzionalak determinatu du.
Eta Estatu frantsesak, funtsean, logika
esklusiboa baliatu du Iparraldeko mu-
gimendu antimilitaristan, jakinik Kriesi-
rentzat logika eskusiboa, logika erre-
presibo, konfrontazional zein polari-
zantearen sinonimo dela.

Logika hori, bi jarrera-motatan gau-
zatu da. Alde batetik, errepresioa era-
bili du bere ezaugarri guztiekin. Hala
ere, bi dimensio hauek bereizten dute
Estatu frantsesaren errepresioa.

Lehenik, errepresioa bortitza izan da
hainbat kasutan. Hor dago maiatzaren
23ko manifestazio nazionalaren erre-
presio bortitza froga gisa⁵; baita intsu-
misoek jasandako kartzela-kondena
luzeak ere. Horrez gain, manifesta-
zioen, martxa batzuen zein intsumi-
sioaren aldeko adierazpen publikoa
debekatua izan zen.

Eta bigarrenik, errepresioa selekti-
boa izan da. Aipa dezagun Lazkarai
zein Lechardoy intsumisoen kasua.
Hain zuzen ere, bi intsumiso horiek hiru
aldiz kartzela-zigorrrera kondenatuak
izan ziren, hots, ez obeditzeagatik,
intsumiso bezala eta desertore gisa.
Une berean, “delitu” bera egin zuten
beste intsumiso batzuk kondenatuak
izan ziren behin, kartzela zigorrak bete
gabe. Halaber, mugimenduko kideen
artean atxilotuak izan zirenak, maiz
militanteenak ziren.

Beste aldetik, logika hori mugimen-
duaren arabera indiferentzia batek
karakterizatu du. Horrek esan nahi du
Estatu frantsesak ez dituela mugimen-
duaren eskakizunak kontuan hartu eta,
beraz, ez diela erantzun, eta baita ere
ez duela mugimendurekin negoziatu
ezta hitz egin nahi izan ere. Jarrera
hau ilustratzeko lehen hilabeteetako
errepresio eza aipa daiteke.

Oro har, Iparraldeko mugimendu
antimilitaristarekin ukan duen jarrerak
Duyvendak-en ikerketen konklusioa
konfirmatzen eta indartzen du, hots,
«maiz jarrera mespretxagarri bat ikus
daiteke (Estatu frantsesaren partetik)
non mugimendu sozialak ignoratuak
diren, eta jarrera hori errepresio gogor
zein selektibo batekin doa, batez ere
“aberria arriskuan dagoenean”» (1992:
103).

5. Errepresioa hain bortitza izan zen non organizazio (alderdi politiko, sindikatu, elkarte) frantses batzuek manifestazio bat antolatu zuten maitzaren 29an poliziaren interbentzioaren bortizkeria salatzen.

Estatuak bere logikako modalitate bat edo bestea erabili du, bere estrategien arabera. Eta estrategiak osatzerakoan bere ingurugiroko osagaien jarrera kontuan hartu du⁶.

1.3. Estatuaren strategiaren aspektu desberdinak

Izan ere, Iparraldeko mugimendu antimilitaristaren arabera estatuak estrategiak osatu ditu, aktore batzuen jarrera kontuan hartuz. Horien artean aipa genitzake, estatuaren helburuez gain, bere inguruko aliantza- eta gatazka-sistemako osagaiak.

Bere helburuei dagokienez, funtsean lau motatakoak dira, hots, mobilizazio antimilitarista eta intsumisoen kopurua ez dinamizatzea zein ez emendatzea; halaber, mugimenduak ez ditzan sustengu desberdinak lortu, bere barne-batasuna kolokan ezartzea; azkenik, mugimenduarekin duen indar-harremana bere aldekoa izatea, horren bidez tratamendu politikoa eman behar ez izateko, bestela esanda, ez instituzionalizatzeke.

Baina, helburu horiek bete ahal izateko funtsezkoa izan da aktore batzuen jarrera kontuan hartzea. Gatazka-sistemaren osagaietatik nola ez garrantzitsuena aipatu, hau da, Iparraldeko mugimendu antimilitarista. Izan ere, bere logika, akzioak eta erabilitako akzio-errepertorioek eragin erabakigarria eduki dute, zuzenki edo ez hain zuzenki. Are eta gehiago, pixkana-pixkana bi aktoreen arteko harremana

gero eta konfrontazional eta polarizanteagoa bilakatu delako. Mugimenduari beste osagai batzuk gehitu behar zaizkio, hain garrantzitsuak izan ez arren. Adibidez, organizazio abertzaleak eta frantses batzuk, Amnesty International edo Iparraldeko iritzi publikoaren zati bat⁷.

Eta Estatu frantsesaren aliantza-sistemaren osagaien kasuan, ez bada baliabide handiak izan ere, hauek dira. Lehenik, hautagai asko, batez ere kostaldekoak. Ondoren, frantses prentsa nazionaleko egunkari gehienak (*Le Monde, Libération...*), Iparraldean gutxi irakurriak badira ere SIADECOREn inkestaren emaitzek diotenez. Azkenik, Iparraldeko iritzi publikoaren zati bat, batez ere, De Gaulle-ren jarraitzaileak eta oro har RPR bozkatzen dutenak.

Kasu guzietan, estatuak bere logikako modalitateak aldatzeak ala ez, ez du kentzen bere estrategia eratzerakoan aktore horien jarrerak kontuan hartu izana. Eta bere estrategia akzio batzuetan gauzatuko da, prozedura batzuk erabiliz.

1.4. Praktikan jarritako akzioak eta erabilitako prozedurak

Hain zuzen ere, estatuak praktikan jarri ditu akzioak, gorago aipatutako helburuak bete nahian. Eta hori, funtsean lau prozedura erabiliz, hots, prozedura judiziala, errepresiboa edo poliziala, espetxekoa eta legislatiboa. Ikus ditzagun zein izan diren helburuen arabera klasifikatuak diren akzioak.

6. Zeren, Fillieulek dioten moduan, besteak beste, «estatuak praktikan jarritako estrategiak adaptazio taktikoen arabera esplikatzen dira, ikaste-prozesu (eroso ala ez) baten bidez» (1995: 35).

7. Horrek politologo batzuen analisisa kolokan jartzen du. Horien aburuz, bere indarrari esker estatu frantsesak bere jarrera ez aldatzeko ahalmena du inguruaren presioa handia bada ere. Zuzenagoa dirudi esatea maila batetik gora estatua bere jarrera aldatzera bultzatua dagoela, beste estatu batzuek baino gehiago jasan badezake ere.

Lehenik, mobilizazioa ez dinamizatzeke estatuak prozedura gehienak erabili ditu, hori baita funtsean gatazkari ikusgarritasuna ematen diona. Hala nola, prozedura judiziala erabiliko du intsumisoak 13 hilabeteraino joan diren kartzela-zigorretara kondenatuz, batzuetan bizpahiru aldiz. Halaber, prozedura errepresiboari helduko dio intsumisoak zein militante batzuk atxilotuz eta baita zenbait manifestazio erreprimatuz. Azkenik, prozedura legislatiboa baliatu du, zenbait manifestazio zein martxa debekatu. Mann-ek azpimarratzen duen bezala, «(estatuak) dispositibo legislatiboa erabil dezake akzio kolektiboen forma desberdinen aurka» (1991: 146).

Bestalde, mugimenduak ez dituzan sustengu desberdinak lor, estatuak akzio batzuk jarri ditu praktikan, funtsean mugimenduaren identitate publikoa manipulatzeko. Batetik, prozedura legislatiboa erabili du, zenbait mobilizazio debekatu *arrêté préfectoral* baten bidez mugimenduko militanteak “agitatores” bezala agertarazi nahian. Eta bestetik, prozedura judiziala baliatu du, intsumisoak gogorki kondenatuz, haien desmartzaren izaera politikoa ez ezagutzeko eta horrela “delinkuente marginal”-en modura agertaraziz.

Barne-batasunaren ahultzeari dagokionez, estatuak bi prozedura erabili ditu. Lehenik, prozedura juridikoa eta, zehatzago izanez, intsumisoak kondena desberdinetara zigortu ditu, barne-zatiketak sortzeko asmoz. Batzuk bizpahiru aldiz kartzela-zigorretara kondenatuak ziren bitartean beste batzuk behin kondenatuak izan zirelarik, kartzela-zigorrik egin gabe. Bigarrenik, militanteen kopurua murrizten ahalegindu da en-gaiamenduaren kostua emendatuz, eta hori, prozedura desberdinei dei eginez.

Azkenik, indar-harremana estatuaren aldekoa izan zedin eta, ondorioz, tratamendu politiko bat ez emateko prozedura guztiak erabili ditu. Laburbiltzeko, esan genezake mugimenduaren identitate publikoa manipulatzeko saiatu dela prozedura legislatibo zein judizialei helduz; zeren, intsumisoak eta militanteak “delinkuente marginal” zein “agitatores” bezala agertaraziz tratamendu penala eta ez politikoa eskatzen zuen. Halaber, mobilizazioa ez dinamizatzeke prozedura berei dei egin dio, errepresioa gehituz; hori ere, mobilizazioa ahulduz, gudu antimilitarista “fenomeno marginala” zela erakutsi nahian ez zela nahiko garrantzitsua tratamendu politiko batendako.

Beraz, argi ikusi dugu zein akzio jarri dituen estatuak praktikan eta zein prozedura erabili dituen. Oro har, estatuaren egitura eta mugimendurekin erabilitako logika dominatzailea, osatutako estrategiak, akzioetan gauzatu direnak, izan dira aztergai. Baina ezin liteke mugimenduaren ibilbidea ulertu mugimenduaren jarrera kontuan hartu gabe.

2. Iparraldeko mugimendu antimilitaristak estatuarekin erabildituen logika, estrategia, akzio-programak zein akzio-errepertorioak

Izan ere politikoak mugimenduan daukan pisuaren balorazioa jorratzea garrantzitsua bada, funtsezkoa dirudi mugimenduaren jarrera kontuan hartzea. Zehatzago izanez, gehiegi egin ohi den gisara, mugimenduaren jarrera ez da estimulu-erantzun eskema batera mugatzen, ezta estatuaren dominazio orokor batera ere, mugimenduak maniobra-margenik ez balu bezala.

2.1. Estatuaren jarreraren perzeptzioa eta logika “rupturista”-ren erabilera

Ezer egin baino lehen, Iparraldeko mugimendu antimilitaristak estatuaren jarrera pertzibitza beharrezkoa izan da⁸. Estatuaren jarrera indiferenteari dagokionez ohartzen gara militanteek horrela ikusten dutela. Horien hitzetan, aldarrikapenak «mespretxatuak dira. (...) Horien aurrean estatuak elkorrena egiten du».

Gauza bera da estatuaren errepresioaren kasuan. Militanteek diotenez, «Estatu frantsesa estatu errepresiboa da», «bere benetako identitatea estatu zanpatzaile eta bortitz batena da». Eta hori, «Estatu frantsesak ez baitu onartzen armada instituzioa denuntziatu eta errefusatua izan dadin» (Har Hitza 24: 3).

Behin estatuaren errepresioa horrela interpretatuta, mugimenduak logika interaktibo “rupturista” baten bidez funtzionatu du. Funtsean lau dira bere ezaugarriak.

Lehenik, mugimenduak konfrontazio-logika baten arabera ihardun du, esan nahi baita gatazka frontal batean inskribatzen dela estatuarekin. Logika hori mugimenduak hasieratik usatu du eta geroz eta gehiago, hortik aurrera bere akzioa estatuarekiko konfrontazioaren inguruan polarizatu delako.

Ondoren, logika interaktibo rupturistak akzio-errepertorio “ez konbentzional”-en (Duyvendak 1992: 50) erabile-

ra suposatzen du. Gero ikusiko dugun moduan akzio-errepertorio horiek bi motakoak izan dira, hots, desobedentzia zibilaren akzio-errepertorioa eta indarkeria politikoaren errepertorioa. Beraz, mugimenduak ez du errepertorio instituzionala erabiltzen, ezta erabili nahi izan ere. Alde horretatik beste mugimendu antimilitaristen parekoa da Ibarrek erakutsi bezala (1992: 20).

Horrez gain, logika interaktibo honek ez du konpromezua onartzen. Konpromezu eza bi mailatan kokatzen delarik, bere helburu zein errebindikazioetan eta «militarismoaren manifestazioetan» (Ibarra 1991: 21), logika horretan konpromezua norberaren helburuen ezeztapenaren sinonimo baita. Dena ala ezer ezeko logika da.

Azkenik, logika interaktibo rupturistak akzio-errepresio-akzio eskemaren arabera iharduten du. Hau da, mugimenduak bere akzioa errepresioaren inguruan artikulatzen duela, azken hau mugimenduaren akzio baten ondorio izan dadin ala ez⁹.

Baina, Iparraldeko mugimendu antimilitaristak logika interaktibo hori erabili badu, logika horren modalitate bakoitza hainbat dimentsioren arabera baliatuko ditu.

2.2. Mugimenduaren estrategiaren osagaiak

Izan ere, edozein akzio-programa (Thoenig, Mény 1989) edo kanpaina osatu eta praktikan jarri baino lehen,

8. Pertzepzioaren garrantzia alde batera utzi du “mugimendu sozial berrien” paradigmatik. Nahiago du tentsio estrukturaletara interesatu eta ez aktoreek horietaz daukaten pertzepzioari (Fillieule 1995: 34).

9. Oro har, logika interaktibo honen erabilera Frantziako aukera politikoen egiturari lotuta dago, faktore bakarra ez bada ere. Izan ere, aldarrikapenen integratzeko kanal formalik ezak Iparraldeko mugimendu antimilitarista konfrontazio logika eta akzio-errepertorio ez-konbentzionalak erabiltzera bultzatu du. Eta errepertorio instituzionala ez erabiltzeak konpromezuaren logika ere indargabetu du. Halaber, Estatu frantsesak aukeratutako indiferentziak eta errepresioak mugimendua eraman du akzio-errepresio-akzio eskema baliatuzera.

mugimenduak aspektu desberdinak integratu ditu bere estrategia osatzerakoan. Logika interaktibo bera erabili arren, mugimenduaren akzioa «eraikuntza bat bezala ulertu behar da. Akto-reek (jarrera) horiek integratzen dituzte bere strategiaren osagai batzuen moduan» (Bernoux 1985: 116). Osagai horietatik lau gordeko ditugu hemen.

Lehenik, nola ez mugimenduaren helburuak aipatu. Ulergarria denez, helburuak estatuarenaren kontrakoak izango dira, hau da, mobilizazioaren dinamizazioa zein intsumisioen¹⁰ kopuruaren emendatzea, sostenguak lortzea hala nola bere identitate publikoa kontrolatuz, barne-batasuna mantentzea, batez beste identitate kolektiboa indartuz, eta indar-harremana sortzea estatuak tratamendu politikoa eman behar izateko. Baina, azpimarratzekoa da bi aktoreen helburuak kontrajarriak badira, jokoan daudenak edo *enjeux*-ak komunak direla, zentzu honetan Touraine-ri (1976) arrazoia emanez.

Baina helburu horiek lortzeko mugimenduak aspektu batzuk hartu behar izan ditu kontuan, mugimenduaren barne-egoera bezala. Izan ere, barne-gatazken existentziak eta militanten kopuruaren arabera mugimenduak bere estrategia egokitu du. Hain zuzen ere, militanten kopuruaren beherakadak, barne-gatazken ondorioz batik bat, kanpaina batzuk martxan ez jartzera edo mugatzera bultzatu du mugimendua.

Ondoren, aipa ditzagun laburki bere inguruko aliantza sistemaren osagaiak: Hegoaldeko mugimendu antimilitarista, pertsonalitate euskaldun zein frantsesak, iritzi publikoaren zati bat¹¹, organizazio abertzaleak zein frantses batzuk

eta azkenik Amnesty International. Izan ere, osagai horien sostengua erabakigarria izan da, mugimenduak bere estrategia osatzerakoan, estatuarekin zeraman konfrontazioan.

Azkenik, bere inguruko gatazka-sistemaren osagaiak eta, batez ere, Estatu frantsesaren jarrera dago. Hain zuzen ere, frantses prentsa nazionala, hautagai politiko zein Iparraldeko iritzi publikoaren zati baten eraginaren gain, estatuarena izan da garrantzitsuena. Are eta gehiago, pixkana-pixkanaka, bien arteko konfrontazioa polarizatu baitzen.

Beraz, ingurugiroa osatzen duten osagai guztien jarrera kontuan hartuta, bere helburuak ahal den mailan betetzeko aukera emango dion estrategia osatu ditu; eta estrategia akzio-programetan zein akzioetan gauzatu da.

2.3. Akzioa eta akzio-programen osatze eta praktikan jartzea

Mugimenduko militanteek zenbait kanpaina osatu eta praktikan jarri dituzte bere helburuak betetzekotan eta bere ingurugiroaren arabera, kanpaina horiek ofentsiboak edo defentsiboak izan direlarik. Hasi baino lehen, esan dezagun kanpainak mugimenduak segitzen zituen helburuen arabera sailkatuko ditugula.

Lehenik, mobilizazioa dinamiza zedin kanpaina batzuk osatu ditu. Aipa dezagun 1992ko maiatzaren 2tik 8ra antolatutako martxa antimilitarista Iparraldeko herrietatik zehar. Era berean, "*Insumisioa*" kanpainaren lehen faseak, informazio-lan handi batekin, helburu bera zeukan. Alabaina, esta-

10. Oro har, zerbitzu militarra egin nahi ez dutenak, intsumisioa, kontzientzi eragozpena ala erreformaren bidez.

11. Mundu abertzaleatik at doana.

tuak egindako atxiloketei aurre egiteko akzio-programa bat jarri du martxan, militante batek zehaztu digun moduan. Halaber, hainbat kanpainak intsumisioen kopurua emendatzea nahi zuten, hala nola, intsumisio berri bakoitzaren promozioa eginez. Eta beste batzuk intsumisioak kartzela zigor luzeetara kondenatuz antolatu ditu estatuak, besteak beste, intsumisio presoentzat estatutu balorizatu bat sortuz eta baita sostengatzeko mobilizazio desberdinak eginez.

Bestalde, kanpainak antolatuak izan dira sostenguak lortzeko. Inguruko osagai desberdinen artean nola ez aipatu Iparraldeko iritzi publikoaren zein pertsonalitateen sostengua lortzeko praktikan jarritakoak. Garrantzitsuenerarikoa bi petizioen sorrera izan zen. Batek arrazoi antimilitaristendako boluntarioki erreformatu ziren pertsonak hunkitzen zituen, eta besteak, arrazoi berberengatik armada inolaz ere ez egitera engaiatzen ziren gazteak. Une berean, estatuak mugimendua sostengu sozialik gabekoa zela erakusteko helburuarekin egindako ahaleginak deuseztatzeko, mugimenduak “70en deia” bultzatu zuen. Izan ere, zazpi probintzietako 70 pertsonalitatek intsumisioen alde kanpaina publiko bat antolatu zuten.

Horrez gain, akzio-programa zenbaiten barne batasuna mantendu nahi zuten. Aktibitate hori da Dubet-ek *aktorearen lana* (1994: 183) deitzen duena. Alde batetik, mugimenduko organizazioen funtzionamendurako erregela formal zein informalak osatuz eta prak-

tikan jarri¹². Eta estatuaren indiferentzia-jarrerak sor zitzakeen desengaiamenduak oztopatzeko¹³; mugimenduak bere aldetik egun bereziak antolatu zituen zeuden arazoak aipatzeko eta aterabideak aurkitzeko, 1996ko urtarrilean Arbonan suertatu zen gisara.

Azkenik, indar-harremana bere aldekoa izan zedin, horrela estatuak tratamendu politikoa ematera bortxatuz, mugimenduak antolatutako kanpainetatik “*intsumisioa*” kanpainaren bigarren fasea aipa daiteke; baita intsumisioen atxiloketa ostean praktikan jarritako sabotajeak ere. Halaber, estatuak indiferentzia-jarrerara itzultzea erabaki eta mugimenduak intsumisioa hunkitzen ez zuten kanpainak antolatu zituen, Mururoako entseiu nuklearren aurkakoaren moduan.

Baina, Iparraldeko mugimendu antimilitaristaren jarreraren analisisa ez litzateke osoa izango ez balira mugimenduak usatutako akzio-errepertorioak aztertzen.

2.4. Erabilitako akzio-errepertorioak

Hasi baino lehen zehatz dezagun errepertorio-akzioa akzio-modutik bereizten dugula. Lehenak akzio forma berezi bat izendatzen badu, manifestazioa, sit-in-a edo petizioa bezala, bigarrena akzio-modu batzuen biltzea da elementu komun baten inguruan.

Hori esanda, mugimenduak funtsean bi akzio-errepertorio erabili ditu. Bata desobedentzia zibilarena, jakinik desobedentzia zibilak akzioaren ikus-

12. Adibidez, mugimenduak toki eta une erregular batzuk sortu zituen bere helburu orokorrei baita funtzionamendu arazoei buruz hitz egiteko. Horrela, gatazkak handitu baino lehen konpontzeko aukera zegoen. Eta erakundeen funtzionamendurako bezala, mugimenduak erregelak sortu zituen akzio militanteari buruz.

13. Mugimenduan parte hartu duten aktore-multzo batzuk «akzio kolektiboaren komunitate pertinentetarako» baitira (Ségretin 1980), esan nahiez akzio kolektiboaren arabera definitzen direla eta «desegin daitezke(ela) akzioak ez dituelarik mobilizatzen» (Bernoux 1985: 199).

pegi berezia duela non logika konfrontazional bat erabiltzen den baina indarra alde batera utziz. Errepertorio honen barruan honako akzio-moduak daude, hots, zerbitzu militarra ez egiteko modu desberdinak (intsumisioa, kontzientzi eragozpena, erreforma...), gose-greba eta manifestazioak, parodikoak ala ez, eta prentsaurreko, debate publiko zein petizioak.

Eta bestea, indarkeria politikoaren akzio-errepertorioa da. Desobediencia zibilak ez bezala, indarkeria politikoak konfrontazioa suposatzen badu indarkeria erabiltzea legitimo eta beharrezko bezala ikusten du helburu politikoak lortzeko. Iparraldeko mugimendu antimilitaristaren kasuan funtsean bi forma hartuko ditu. Lehenik, sabotaje batzuk eginez. Eta bigarrenik, indarkeria espresiboari dei eginez, batez ere kondena judicial gogorren ostean¹⁴.

Beraz, bi lehen zati hauetan Estatu frantsesa eta Iparraldeko mugimendu antimilitaristak ukandako harremanak aztertu ditugu, zein logika interaktiboren arabera funtzionatzen zuten ikusiz, estrategiak osatuz, akzioak praktikan jarriz eta prozedura edo akzio-errepertorioak erabiliz. Baina, bi aktore horien harremanak mugimenduaren ibilbidean edukitako eraginaren azterketa jorrazteko dago.

3. Harremanaren eraginak mugimenduaren ibilbidean

Izan ere, bien arteko harremanaren modalitate zein zergatiak jorratzea garrantzitsua eta, batez ere, beharrez-

koa da ondorengo ulertzeko. Interesatzen zaiguna da ikustea zein izan diren harreman horren eraginak mugimenduaren ibilbidean. Zehatzago izanez, lau adierazle hartuko ditugu, jokoan daudenei ala “enjeux”-ei egokitzen zaizkienak.

Bestalde, harreman honetara interesatzeak ez du inola ere esan nahi mugimenduaren ingurugiroko beste osagaiek ez dutela honen ibilbidean eraginik ukan. Baina estatuarekiko harremana ageri da funtsezkoen, eta gero eta gehiago bien arteko konfrontazioa aurrera joan ahala.

Azkenik, prozesuak determinatzaileei hobetsi ditugunez edo, bestela esanda, mugimenduaren ibilbidea aztergai dugunez, perspektiba diakronikoa erabiliko dugu. Beraz, aldi bakoitzean ibilbidearen fase desberdinak aztertuko ditugu.

3.1. Eraginak mobilizazio indibidual zein kolektiboaren dinamizazioan

Segidan ohartzen gara harreman horrek eta mugimenduaren ibilbideak lotura estua dutela, mobilizazioaren dinamismo-aldaketek estatua zein mugimenduaren akzio eta erreakzioak segitzen baitituzte. Ikus dezagun konkretuki.

Lehen fase batean, 1991ko urritik 1992ko maiatzaren hasierara doanean, mobilizazioa ez da oso garrantzitsua, kasu batzuetan izan ezik, ezta erregularra ere. Egoera hori estatuak aukeraturako indiferentzia jarrerari lotuta dago. Izan ere errepresiora ez jotzean, mugimenduak zailtasunak eduki ditu

14. Oro har, Estatu frantsesarekiko harremanak eragin handia eduki du akzio-errepertorioen erabileran eta erabileraren unean ere. Izan ere, mugimenduak, Duyvendak-ek deituriko akzio-errepertorio ez-konbentzionalak erabili baditu Estatu frantsesaren egitura instituzional eta estrategia dominatzailearengatik da, errebindikazioak integratzeko “kanal formal zein informal” (Duyvendak 1992: 111) ezak eta mugimenduarekiko errepresio zein indiferentziak mugimendua horretara eramaten baitute.

mobilizazioa dinamizatzeke, jakinik bere logika interaktiboa mundu abertzaleko kideen¹⁵ kultura politikoa dela: batik bat, akzio-errepresio-akzio sistemaren arabera funtzionatzea.

Egoera hori ikusiz, mugimendua mobilizazioa dinamizatzen ahalegindu da, Estatu frantsesarekin indar-harremana sortu nahian, azken honen errepresioa, kontzienteki edo inkontzienteki, tarritatuz. Horregatik lehen intsumisoak aurkeztu zituen eta 1991ko abenduaren 21eko manifestazio nazionala eta martxa antimilitarista antolatu zituen. Eta, pixkana-pixkanaka, ekintza horiek eragina edukitzen hasi ziren. Hor dira frogak gisa, manifestazio nazionalako 800 partaideak eta baita martxa antimilitaristaren prestakuntzaren eta garapenaren inguruan sortutako mobilizazioa ere.

Mugimenduaren ekintzek sortutako egoera ikusiz, 1992ko maiatzaren hasieran Estatuak bere jarrera aldatzea erabaki zuen. Bere nahia, mobilizazioa erabat ahultzea zen, garrantzia harrezan baino lehen. Hortik aurrera, errepresio bortitz eta frontala jarriko du praktikan, atxilotetekin, manifestazio batzuen debekatzearekin eta erreprimitearekin, intsumisoak kartzela-zigor luzeetara kondenatuz, etab., horrela mobilizazioan engaiatzearen kostua emendatuz. Baina errepresio horrek ez zituen ez mobilizazio kolektiboa ezta intsumiso berrien engaiamendua ahuldu.

Justu alderantzizkoa gertatu zen ordea, errepresioak mobilizazioa dinamizatu baizik ez baitzuen egin. Manifestazioak, gose-grebak, intsumiso berriak eta mota guztietako mobiliza-

zioak suertatu ziren. Oro har, mobilizazioa garrantzitsua eta erregularra izan zen militanteek baieztatzen duten gisara. Alabaina, egoera hau mugimenduak egindako gestioetatik bereizi ezinezkoa da. Hain zuzen ere, lehen atxilotetak gertatu baino lehen, mugimenduak akzio-programa bat osaturik zeukan horiei aurre egiteko. Beraz, mugimendua mobilizazioaren oztopo bat izatetik baliabide izatera iritsi da, errepresioa instrumentalizatuz eta etekina ateraz.

Mobilizazioaren dinamizazio horren aurrean, Estatuak bere jarrera aldatzera eramana izan zen, 1993ko amaieratik at. Eta errepresio selektiboagoa eta ez frontala jarri zuen martxan, jakinik horiek zutela mobilizazioa elikatzen. Horrek esan nahi zuen mugimenduak ezin zuela lehen bezainbat berekiko jendearen identifikazioan jokatu¹⁶. Halaber, tratamendu desberdinak kanpaina komunak egitea zailtzen zuen. Azkenik, estatuarekin izandako konfrontazioek mugimendua estatuarekiko harremanaren inguruan bere akzioa antolatzen eraman zuen eta, batez ere, intsumiso espetxeratuen inguruan. Ondorioz, intsumisoen atxiloteten eta espetxeratzeen erabakia Estatuarena zenez mugimendua beraren menpe geratu zen.

Horren aurrean, mugimenduak zailtasunak ukan zituen mobilizazioa dinamizatzeke. Hala eta guztiz ere, errepresioa gehien jasaten zuten intsumisoen inguruan akzio-programak eraiki zituen, horiek "martir" bezala erakutsiz. Une berean, menpekotasunetik ateratzen ahalegindu ziren intsumisioa ukitzen ez zuten kanpainak osatuz. Hor dira Mururoako entsegu nuklearren eta

15. Esan beharra dago, Iparraldeko mugimendu antimilitaristaren militante eta sinpatizante gehienak mundu abertzaletik etorri arren ez direla mugimendu abertzaleko militanteak.

RPIMAREN aurkako kanpainak. Oro har esan daiteke bolada horretan, mobilizazioa progresiboki ahultzen joan zela, intsumiso berrien kopuruaren modura.

Azken fasean, estatua, oharturik errepresioak mobilizazioa dinamizatu besterik ez zuela egiten, alde batera uztea erabaki zuten, lehen faseko jarraitza itzuliz. Eta horri egitura-erreforma bat gehitu zion, hots, armadaren profesionalizazioa eta zerbitzu militar klasikoaren uztea. Jadanik mobilizazio ahula zela kontuan harturik, gorago aipatutako kanpainak ez baitzuten mobilizazio garrantzitsurik sortu, mugimenduak ez zion itenbiderik aurkitzen, bere logika interaktiboaren preso izanik batez ere. Eta zerbitzu militar klasikoaren uzteak ez zuen mobilizazioa ahuldu besterik egin. Zeren, mugimenduak bere akzioa intsumisioaren inguruan antolatua zuenez, zerbitzu militarren desagertzea, zerbitzu militarren desagertzea, existentziko beste arrazoirik edukiko ez balu bezala.

Baina, mobilizazioaren dinamizazioa ez da mugimenduaren ibilbidea osatzen duen adierazle bakarra.

3.2. Eraginak mugimenduaren sostenguetan

Kasu honetan ere, bi aktoreen harremana funtsezkoa da, bai bata eta bai bestearendako horien lorpenak edo lorpen ezak bakoitzaren jarrera baldintzatzen baitu.

Izan ere, lehen fasean, Estatu frantsesaren errepresio ezak ondorioak

eduki ditu mugimenduen sostenguetan, horrek ez baitu Estatuaren ekintzaren-egatik indignazioa sortzen lagundu. Hala ere, mugimenduak ahaleginak egin ditu. Organizazio zein aktore abertzaleen sostengua lortzeko, adibidez, bere identitate kolektiboa publiko bilakatu zuen, informazio-kanpaina baten bidez, erakutsiz mugimendua abertzalea zela eta ez zegoela ETA zein IKren borroka armatuaren aurka. Beste modu batera esanda, antimilitarismoa eta pazifismoa sinonimoak ez zirela erakutsiz. Lehen bi hilabeteetan ez bazen ere¹⁷, laster ekintza horiek eduki zuten eraginik.

Hor ere, Estatua ohartu zen mugimendua sostengua lortzen ari zela, eta mugimendua erabat ahultzen saiatu zen errepresio bortitz eta frontala erabiliz. Zehatzago izanez, mugimenduen identitate publikoa manipulatu nahi zuen, intsumisioak sostengu sozial gabeak eta “delinkuente marginal” bezala agertaraziz. Eta hori, mobilizazio batzuk erreprimitzuz, intsumisioaren aldeko adierazpen publikoak debekatuz eta atxiloteta zein espetxeratzeak aginduz.

Baina, horrek ez zuen indignazioa eta mugimendurekiko identifikazioa besterik sortu. Esan daiteke, zati batean behintzat, mugimenduaren instrumentalizazioari esker suertatu zela, batik bat, bere identitate publiko kontrolatzen jakiteagatik. Informazio kanpainen bidez, bere burua biktima eta ez agresore gisara agertarazi zuen. Adibide gisa, pertsonalitateen zein lparaldekoko iritzi publikoaren sostengua lortzeko bi petizio osatu zituen, baita komunitatuen bidez pertsonalitateek mugimendua

16. Aldaketa horrek eduki du eraginik batez ere abertzaleak ez direnengan, abertzaleen identifikazioa bigarren fasean indartu baita, geroztik aldatu ez delarik.

17. Hasiera batean organizazio abertzaleak nahiko eszeptikoak ziren gudu antimilitaristarekin. Ez ideien mailan, denak militarismoaren aurka baitzueden; bai ordea aldarrikapenaren errealismoan. Izan ere, alderdi politiko batzuek aurkitzen zuten intsumisioaren inguruan kanpaina bat antolatzea ez zegoela lparaldekoko egoera sozio-politikoari egokitu.

menduarekiko elkartasuna erakuts ez zuten eskaera publikoa egin ere. Emaizak mugimenduaren aldekoak izan ziren sostengu anitz lortu baitzuten.

Lortutako sostengu ugariak, mobilizazioaren dinamizazioari gehituz, estatuaren jarrera aldatu zuten. Ikusiz bere jarrerak helburuaren alderantzizkoa eragiten zuela, aldatzea erabaki zuen, intsumitu espexeratuen kopurua murriztuz adibidez. Horrek sostenguen lortzea zailago bihurtzen zuen, eta baita horien adierazpen publikoa ere. Hala ere, mugimenduak sostenguak lortzeko akzio-programak jarri zituen marxan. Oro har, sostenguak berdintsuak izaten jarraitzen bazuten ere, organizazio frantses batzuen kasuak kenduz gero, haien adierazpen publikoa jaisten joan zen.

Eta azken fasean, ikusiz mugimenduaren sostenguak errepresioari eta, batez ere, intsumisoen atxilotetei lotuak zirela, zuzenki ala ez, estatuak alde batera utzi zuen. Mugimenduak erantzun zion, maila txiki batean, lortutako sostenguei ikusgarritasuna emanaz. Emaizta izan da, sostenguak publikoki espresatu ez badira ere, mobilizazio eta atxiloteta ezean, mugimenduak sostengu anitz duela oraino.

Mugimenduaren sostenguetan edukitako eragina ikusi ostean, pasa gaituzen barne-egoeran ukandakoa aztertzera.

3.3. Eraginak barne-egoeran

Urrutiago joan baino lehen, esan dezagun, barne-egoeraz hitz egitean militanteen engaiamendu edo irteerari

eta barne-gatazkaren egoerari pentsatzen dugula. Kasu honetan ere, harremanaren eragina nabaria da, ostean ikusiko dugun moduan.

Hain zuzen ere, lehen fasean, Estatuak indiferentzia-jarrera bat dauka. Horren ondorioak argiak dira, hots, mugimenduan engaiatzen direnak funtsean militanteenak direla. Hala ere, mugimenduak praktikan jarritako ekin-tzek eraginik ukan dute, batik batik manifestazioetako partaideen kopuruan eta orientazio politikoan¹⁸. Une berean, mugimenduaren organizazioan sartu ez badira ere, hainbat aktorek mugimenduak antolatutako zenbait kanpainen parte hartu dute.

Egoera hori ikusita, estatuak jarrera aldatzea erabaki zuen, errepresio bortitza inposatuz. *Errekurtsoen mobilizazioa*-ren (Olson 1965) paradigma jarraituko bagenu, errepresioak ez lituzke aktoreak militante bilakatzen bultzatu beharko. Baina, mugimenduak horri aurre egiten jakingo du akzio-programak praktikan jarri. Ondorioak ezagunak dira, hau da, 1992ko maiatzaren amaieran hainbat komite lokal sortzen direla Iparralde osoan. Halaber, biltzar nagusietan parte hartzen dutenen kopurua emendatzen doa.

Alabaina, militanteen kopuruaren emendatzearekin batera barne-gatazka bat sortuko da mugimenduaren organizazioaren barnean. Izan ere, dinamizazio horrek organizazioko korrante batek zeukan proiektuarekin bat egin zuen, organizazioa masa-mugimendu bilakatzea alegia. Beste batzuk ordea, gehiengoak, gauzak zeuden bezala uztearen alde zeuden. Gatazka horren ondorioz, gutxiengoak zen korranteak

18. Izan ere, 1991ko abenduan izandako mobilizazioetan, Patxa-ko militanteek gain mugimendu abertzaleko beste talde politikoetako militante eta sinpatizanteen partaidetza nabaritu zen.

organizaziotik alde egin zuen, batzuek Iparraldeko mugimendu antimilitaristan jarraitu arren.

Hala eta guztiz ere, Estatuak bere jarrera aldatu zuen, bere akzioak udal komite zein militante berriak sortu zituela ikusiz. Hortik aurrera errepresio selektiboagoa erabili zuen. Horrek esan nahi zuen intsumiso guztiak ez zirela zigor berdinetara kondenatuak izan eta beraz horien espetxeratzea ez zela sistematikoa. Mugimenduak aurre egin zion horri batasuna sortzeko lan eginez. Lan horrek funtsean bi forma hartu zituen, organizazioaren funtzionamendurako erregela formal zein informalak, eta akzio militanterako erregelak sortuz, hala nola, gudu antimilitaristari bakarrik ekitea. Lan horrek batasuna eraikitzea permititu bazuen ere, gatazka latente batzuk sortu ziren intsumiso batzuen artean, injustizia-sentimenduak gidatuak; baita zenbait militante-
ren joatea ere, mobilizazioaren eta sostenguen ahultzeak, engaiamenduaren kostua igo baitzuen bere ordainsaria¹⁹ behar izan zen une berean.

Bere jarreraren emaitzak ikusita, estatuak errepresioa alde batera uztea erabaki zuen. Mugimenduak geroz eta militante gutxiagorekin zailtasunak zituen exigentzia funtzionalei aurre egiteko eta zer esanik ez kanpaina berriak osatzerakoan. Eta engaiamenduaren kostu handiak zein geroko perspektiba ezak mugimenduaren partaideen nukleoa militanteenetara mugatu zuen, hasieran bezala.

Azkenik, ikus dezagun zein izan diren harreman horren eraginak indar-harremanean eta, beraz, instituzionalizazioan.

3.4. Eraginak indar-harremanean eta instituzionalizazioan

Ulergarria den gisara, kasu honetan, agian besteetan baino gehiago, harremana funtsezkoa izango da, batik bat, bi aktoreak zuzenki inplikatzeko baititu.

Hain zuzen ere, lehen fasean, estatuak indiferentzia jarrera bat hautatu zuen, tratamendu politikorik ez emateko. Mugimenduak ordea, estatuarekin indar-harremana sortzeko nahia zuen eta horregatik konfrontazioaren bila zebilen. Baina, errepresio ezak bere nahia oztokatzen zuen. Hala ere, helburu horrekin, besteak beste, hainbat ekintza jarriko ditu praktikan, hiru intsumisoen aurkezpena, lehen manifestazio nazionala edo martxa antimilitarista bezala. Eta pixkana-pixkanaka, indar-harremana sortzen hasi zen.

Hori dela eta, estatuak bere estrategia aldatu zuen, beti helburu bera betetzeko asmoarekin. Izan ere, errepresio bortitza erabiliz estatuak mugimendua erabat ahuldu nahi zuen, "fenomeno marginala" zela eta tratamendu penala eta ez politikoa eskatzen zuela erakutsiz. Mugimenduak, bere logika interaktiboa dela eta, errepresioa erabiliko du eta konfrontazioa areagotuko du indarkeria politikoaren errepertorioa erabiliz. Halaber, mugimenduaren akzioa estatuarekin daukan konfrontazioaren inguruan polarizatzen da. Baina, indar-harreman bat sortzera iristen bada ez dago horrenbestez instituzionalizaziorik.

Bere jarreraren emaitza txarrak ikusita, Estatuak aldatu egin du, errepresio selektiboa eta ez frontala hobetsiz. Aldaketa horrek arazo batzuk sortzen

19. Iparraldeko mugimendu antimilitaristaren kasuan ordainsaria ez da monetario zein materiala izan, gutxi baitzeuzkan, sinbolikoa baizik.

zizkion mugimenduari, zigor desberdinek ez baitzuten kanpainak ongi antolatzeko denbora ematen, haien eragina ahulduz. Baina, funtsezkoagoa, mugimenduak bere akzioa errepresioaren inguruan antolatu zuenez, Estatuaren erabakien menpe zegoen. Horren aurrean, mugimenduak harreman konfrontazionalarekin jarraitu arren, intsumisioa hunkitzen ez zuten kanpainak antolatu zituen menpekotasun horretatik atera nahian. Ondorioz, indar-harremana Estatuaren alde doa eta ez dago instituzionalizaziorik.

Azkenik, Estatuak bere jarrera emankorra zela ikusirik, mobilizazioa, sostenguak, barne-egoerari dagokionez eta, beraz, eman beharreko tratamenduari, errepresioa alde batera utzi du. Halaber, funtsean beste arrazoi batzuegatik bada ere, Estatuak mugimenduaren eskakizun garrantzitsuenetarikoa bat partzialki integratu du, hots, zerbitzu militar klasikoaren uztea. Eta, jada ahuldua zegoen mugimenduak, ezin izan du berriz sortu indar-harreman bat geroko perspektiba ezean.

Beraz, ikusi dugu zein punturaino Estatu frantsesak eta Iparraldeko mugimendu antimilitaristak ukandako harremanaren eraginak garrantzitsuak izan diren mugimenduaren ibilbidea ulertzerakoan.

Ondorioa

Ondorio gisa esan dezagun artikulua honetan zehar Estatu frantsesa eta Iparraldeko mugimendu antimilitaristak ukandako harremana zein izan den jorratu dugula. Horretarako bakoitzak bestearekin erabili dituen logikak, estrategiak, akzioak eta prozedura edo akzio-errepertorioak aztertu ditugu. Eta ostean agerian jarri dugu zein ziren ha-

rreman horren eraginak mugimendua-
ren ibilbidean.

Funtsean, ondorengo hipotesia frogatzen saiatu gara, hots, ezin dela Iparraldeko mugimendu antimilitaristaren ibilbidea ulertu ez bada mugimendu horrek eta Estatu frantsesak ukan duten harremana kontuan hartzen. Horrek bi inplikazio teoriko dauzka. Alde batetik, Estatuaren egitura zein jarrera kontuan hartzea funtsezkoa dela mugimendu sozialaren ibilbidea ulertzeko. Eta ez, Tourainek egin ohi duen gisara, Estatuak eta mugimendua bi analisi-eremu desberdinetakoak balira bezala. Eta, beste aldetik, Estatuaren jarrera eraginkorra izanik ere, ezinbestekoa dela mugimendua aktore gisa kontsideratzea. Esan nahi baita, beharrezkoa dela mugimenduak egiten duen gestioa eta, oro har, Estatuaren arabera erabilitako logika interaktiboa, akzioak eta akzio-errepertorioak kontuan hartzea, maila batean bere ibilbidean eragina edukiz.

Bestalde, Iparraldeko mugimendu antimilitaristaren geroari buruz esan behar da hirugarren zatian ikusi dugun moduan, gaur egun, mobilizazioa ahula dela, sostenguak existitu arren ez baitira publikoki maiz adieraziak; barne gatazken ondorioz korrante batzuk organizaziotik atera dira; beste zenbait militante zein sinpatizante ere bai arrazoi desberdinengatik, eta indar-harremana Estatu frantsesaren aldekoa da. Hori gutxi balitz, zerbitzu militar klasikoaren desagerpenak mugimendua perspektiba eta existitzeko arrazoi gabe utzi du, are eta gehiago, mugimenduak bere akzioa intsumisioaren inguruan antolatuta duela jakitean.

Hala eta guztiz ere, artikulua honetan zehar erakusten saiatu garen moduan, mugimenduaren geroa bere erreakzio-

-ahalmerari lotuta dago. Izan ere, Estatuak egindako aldaketa koiuntural zein estrukturalak garrantzitsuak badira, mugimenduak ahalmena dauka horiei aurre egiteko. Bere akzioa izan dadila ez soilik intsumisioaren inguruan antolatua eta horrela benetako mugimendu antimilitarista bilakatua, ez soilik akzio-errepresio-akzio eskemaren arabera funtzionatuta, baita ere akzio-erreperto-

rio erdi-instituzionalak erabilita. Lehen aukera jadanik jarri du praktikan mugimenduak, Mururoako entseiu nuklearrren aurkako kanpaina antolatuz edo identitate kolektibo zein publikoa aldatuz, gudu antimilitarista ez zela intsumisiora mugatzen erakutsiz.

Beraz, maila batean gutxienez, geroa bere eskuetan dauka mugimenduak.

Bibliografia

- Bernoux, P. (1985): *La sociologie des organisations*, Points-Seuil, Evreux.
- Birnbaum, P. (1992): "Mouvements sociaux et types d'État", in F. Chazel, *Mouvements sociaux et action collective*, PUF, Paris.
- Chazel, F. (1992): "Mouvements sociaux", in *Traité de sociologie*, PUF, Paris.
- Crozier, M.; Friedberg, E. (1977): *L'acteur et le système*, Seuil, Paris.
- Dubet, F. (1994): *Sociologie de l'expérience*, Seuil, Paris.
- Duyvendak, J-W. (1990): *Profiles and trajectories of five social movements*, University of Amsterdam, Amsterdam.
- , (1992): *Le poids du politique. Nouveaux mouvements sociaux en France*, L'Harmattan, Paris.
- Freas, J. (1990): "The French Parliament: Loyal Workhouse. Poor Watchdog", *West European Politics* 13, 32-51.
- Fillieule, O. (1993): *Sociologie de la protestation: les formes de l'action collective dans la France contemporaine*, L'Harmattan, Paris.
- , (1995): "Sociologie de la mobilisation", *Sciences Humaines*, 9 Hors Série, mai-juin.
- Fillieule, O.; Péchu, C. (1993): *Lutter ensemble, les théories de l'action collective*, L'Harmattan, Paris.
- Kitschelt, H. (1986): "Political Opportunity Structures and Political Protest: Anti-Nuclear Movements in Four Democracies", *British Journal of Political Science*, 16, 57-85.
- Kriesi, H. (1991): *The political opportunity structure of new social movements: its impact on their mobilization*, Berlin, WZB.
- Mann, P. (1991): *L'action collective. Mobilisation et organisation des minorités actives*, Armand Colin, Paris.
- Neveu, E. (1996): *Sociologie des mouvements sociaux*, La Découverte, Paris.
- Rosanvallon, P. (1990): *L'État en France: de 1789 à nos jours*, Points-Seuil, Paris.
- Tarrow, S. (1989): *Democracy and Disorder: Protest and politics in Italy 1965-1975*, Clarendon Press, Oxford.
- Tilly, C. (1986): *Action collective et mobilisation individuelle*, Références, Presses de la Fondation des Sciences Politiques.
- Tocqueville, A. (1856) (1988): *L'ancien régime et la révolution*, Flammarion, Paris.
- Touraine, A. (1978): *La voix et le regard*, Seuil, Paris.
- , (1984): *Le retour de l'acteur*, Fayard, Paris.
- Urteaga, E. (1995): "Mobilizazioaren teoria soziologiko berri baten zirriborroa", *Uztaro*, 15, Bilbo.
- , (1996): *Le mouvement antimilitariste basque contemporain*, Baiona.
- Wright, V. (1989): *The Government and Political of France*, Unwin Hyman, Londres.